

## **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Gure enpresa itsuentzako, mugikortasun zailtasunak, gauzak bereizteko zailtasuna, mugikortasun urria eta lepoa biratzeko ezintasuna dutenentzat lagungarria izan daitezkeen produktua ekoizten saiatuko da. Produktu horrek, egunerokotasunean inoren menpe egon beharrik gabe, hauek beraien kabuz baliatzeko aukera eskainiko du, horrela, ez dira inoren kontrolpean egongo. Gainera, ez dituzte orain erabiltzen diren metodoak erabili beharko, hala nola, txakur laguntzaileak, makilak, bastoiak... Gaur egun, adibidez, hainbat enpresa existitzen dira merkatuan itsuentzat makilak sortzen dituztenak (Fudesma, Automex, Jais...). Alde batetik, gure ustez, horiek guztiak ez dira hain eraginkorrak, izan ere, txakurrak lagundu bai, baina bera ere zaindu egin behar da (paseatzera atera, jateko eman, garbitu, ...) eta makila eroriz gero, zailtasunak aurki ditzakete itsuek berriro ere hartu ahal izateko.

Gure produktua zapatila batzuk izango dira, hauek, sentsore batzuk izango dituzte inguruan bibrazioaren bidez kontsumitzaileari oztoporik gabeko bidea egin dezan lagundu diezaiokeena. Bibrazio hauek sakontzen joango dira oztopoaren aurrean dagoen distantziaren arabera, eta horrela, honek jakin ahal izango du edozein trabaren aurrean noiz gelditu eta noiz aldatu beharko duen bere noranzko zein norabidea.

Erabilerari dagokionez, oso errazak izango dira. Zapatila jantzi, eta sentsoreak pizteko botoi bati eman besterik ez da egin behar. Ondoren, kentzerakoan, botoiari berriro eman eta telefono mugikorren antzera kargatzen jarri beharko da. Gainera, bateriak 3 egun iraungo ditu gutxi gorabehera, beraz, ez da beharrezkoa erabiltzen diren bakoitzero kargatzen jartzea.

Zapatila hauek, beste oinetakoen antzeko diseinua edukiko dute, baina kontsumitzaileen egoera kontuan izanik, erabiltzeko ahalik eta erosoena izan daitezen, ez dute lokarrik izango, belkroa baizik, eta plantilla berezi batzuk izango dituzte, malgutasun handia dutenak, erosotasuna emateko eta mugikortasun arazoak dituztenei segurtasuna eta egonkortasuna eskaintzeko. Gainera, oin bakoitzaren arabera egokitu ditzakegu, ikusiz bakoitzaren beharrak desberdinak direla (batzuk oin zabalagoak, besteak estuagoak...). Horrez gain, oina lodi xamarra izango da (4 zentimetro), bertan sartuta egongo baita sentsorea martxan mantentzeko bateria, zeina kargadore baten bidez beteko den energiari eta hori kablea sartu ahal izateko zuloa silikonazko tapa batez babestua egongo den. Bestalde, oinaren kanpoaldean inguru guztia hartuz sentsorea egongo da eta hau piztu eta itzali ahal izateko, zapatilaren mihian botoi txiki bat izango dute.

Zapatilen diseinuari dagokionez, bi aukera desberdinduko ditugu bezeroaren beharretara egokitzeko, bata kirola egiteko zapatilak izango lirатеke, eta bestea, aldiz, formalagoak izango lirатеkeen zapata batzuk. Hala ere, eredu standarreko zapatilla batzuk ere ekoitziko ditugu.

Gure produktua egiteko kostuak, nahiko handiak dira, kontuan hartuz bateria, sentsoreak... nahiko garestiak direla. Hori dela eta, dagokion prezioa 200€ ingurukoa izango dela iruditzen zaigu.